


## 2023an ospitalizazioek % 2,1 egin zuten gora Euskal AEko ospitaleetan

***Euskal AEko ospitalizazioen %84 ospitale publikoetan izan ziren; Estatuan, berriz, batez besteko kopurua % 73 izan zen***

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko ospitaleek 2023an 248.650 ospitalizazio zenbatu zituzten, aurreko urtean baino % 2,1 gehiago. 2022an bezala, ospitalizazio horiek Estatuko guztizkoaren % 5,1 izan ziren. Arreten % 83,6 ospitale publikoetan eman zen, Estatuan baino ia ehuneko hamaika gehiago (% 73); Euskal AEren atzetik geratu ziren Katalunia (% 51,8), Madrilgo Erkidegoa (% 66,3), Andaluzia (% 74,6), Galizia (% 80) eta Valentziako Erkidegoa (% 80,6).

### Ospitaleratzeak, ospitalearen, Erkidego eta Hiri Autonomoaren mendekotasunaren arabera (%). 2023




Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika. INE. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

### ***Euskal Autonomia Erkidegoa ospitalizazio-tasa altuenak dituzten autonomia-erkidegoen artean dago***

Euskal AEk 100.000 biztanleko 11.297 ospitalizazio erregistratu zituen, Estatuko batez bestekoaren gainetik (10.065), eta ospitalizazio-tasa handienak izan zituen hirugarren erkidegoa izan zen, Asturiasko Printzerriaren (11.583) eta Kataluniaren (11.521) atzetik.

100.000 biztanleko ospitalizazioen tasa, Erkidego eta Hiri Autonomoen arabera. 2023



Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika. INE. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

***Euskal AEko ospitaleetan ospitalizatutako pertsonen % 53k 65 urte eta gehiago zituen, Estatuan, berriz, % 48k***

Ospitalizatutako pertsonen % 50,9 gizonak izan ziren eta % 49,1 emakumeak; Estatuan, aldiz, emakumeen proportzioa handiagoa izan zen (% 51,4). Haurdunaldi, erditze eta erdiberriaroko gertakariak kontuan hartu ezean, emakumeen ehunekoa % 45,9ra jaitsiko litzateke Euskal AEn (% 47,5 Espainian).


65 urte eta gehiagoko pertsonak Euskal AEko ospitalizazioen % 52,9 izan ziren 2023an, Espainian baino ehuneko bost puntu gehiago (% 47,9); talde horren barruan, 65 eta 84 urte bitartekoek jaso zuten asistentzia-bolumen handiena (% 37,6, eta Espainian % 34,2); ondoren, 45-64 urtekoek (% 24,7) eta 85 urte eta gehiagokoek (% 15,3).

***Digestio-, zirkulazio- eta arnasketa-gaixotasunak izan ziren ospitalizazio-kausa ohikoenak, bai Euskal AEn bai Espainian***

Digestio-aparatuko gaixotasunak (% 12,8), zirkulazio-aparatukoak (% 12,4) eta arnas aparatukoak (% 12,3) izan ziren ospitalizazio-kausa nagusiak 2023an. Euskal AEko ospitaleetako ospitalizazio guztien % 37,5 izan ziren (% 36,5 Espainian). Horien artean, bigarren urtez jarraian, arnas aparatuko gaixotasunen gorakada nabarmendu zen (2022ren aldean +% 18), digestio- eta zirkulazio-apartuetako gaixotasunen balioetatik hurbil geratu baitziren.

Beste kausa esanguratsu batzuk (20.000 ospitalizazio baino gehiago urtean) lesioak eta pozoitzeak (% 9,3), tumoreak (% 9,1) eta aparatuko muskuloeskeletikoko gaixotasunak (% 8,3) izan ziren.

**Ospitaleratzeak gaixotasun ugarienen arabera Euskal Aen eta Espainian, sexuari jarraiki (%). 2023**



Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika. INE. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

***Emakumeen artean, arnas eritasunen ondoriozko ospitalizazioak digestio-eta zirkulazio-gaixotasunen ondoriozkoak baino gehiago izan ziren***

Haurdunaldi, erditze eta erdiberriaroko gertakariak, nahiz eta garrantzi gero eta txikiagoarekin (% 11,9, eta Estatuan % 14,5), ospitalizazio-kausa nagusia izaten jarraitu zuten emakumeen artean; oso gertutik jarraitzen dio arnas eritasunen taldeak (% 11,8), urte horretan talde horretako gaixotasunak digestio-aparatuko gaixotasunak (% 11,2) eta zirkulazio-gaixotasunak (% 10,6) baino gehiago izan baitziren.

Gizonen artean, digestio-gaixotasunak (% 14,4) eta zirkulazio-gaixotasunak (% 14,1) izan ziren nagusi, Espainiako datuekin bat eginez (biak % 14,3ekin), eta ondoren arnasketa-gaixotasunak (% 12,8) daude.

Gaixotasun ohikoenen multzoen artean, **digestio-aparatuan** ospitalizazio gehien eragin zituzten arrazoi espezifikoak kolelitiasia (besikulako kalkuluak), iztaiko hernia (ohikoagoak gizonetan) eta apendizitis akutua (batez ere adin goiztiarragoetan: 5-24 urte) izan ziren. **Zirkulazio-gaixotasunen** artean, zerebrobaskularrak (garuneko infartua) eta bihotzeko gaixotasunak (hipertentsioa, disritmiak, bihotz-gutxiegitasuna eta miokardioko infartu akutua) nabarmendu ziren.

**Arnasketa-gaixotasunei** dagokienez, pneumonia eta biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa eta bronkiektasia izan ziren ospitalizazio-arrazoi nagusiak (% 38,6). **Lesioei eta pozoitzei** dagokienez, femurraren haustura (ohikoagoak adineko emakumeetan), hanka eta besaurrearen haustura (ohikoagoak 45-64 urtekoen artean) eta garezur barneko lesio traumatikoa izan ziren nagusi.

Tumoreen artean, maskurikoa, kolore-ondestekoa eta bronkiokoa eta birikakoa izan ziren ospitalizazio gehien eragin zituztenak; gainera, gizonen artean prostatakkoa nabarmendu zen, eta emakumeen artean, bularrekkoa eta umetokiko fibroma.

## ***Ospitale-egonaldien kopurua % 2,7 jaitsi zen, eta 8 eguneko batez besteko egonaldia izan zen***

Euskal AEko ospitaleetan ospitalizatutako pertsonak guztira 1.990.909 izan ziren, hau da, 2022an baino % 2,7 gutxiago. Batez besteko egonaldia 8 egunekoa izan zen (8,1 Estatuan), eta handiagoa izan zen gizonetan (8,4 egun) emakumeetan baino (7,6 egun); bi kasuak Estatuko batez bestekoaren (8,8 eta 7,5 egun, hurrenez hurren) azpitik egon ziren.

## **Ospitaleratzeak, egonaldi-egunak eta batez besteko egonaldia Euskal AEko ospitaleetan, gaixotasun talde ohikoenen arabera. 2023**

|                                                                | Ospitaleratzeak |            | Egonaldi-egunak  |            | Batez-besteko egonaldia |            |            |
|----------------------------------------------------------------|-----------------|------------|------------------|------------|-------------------------|------------|------------|
|                                                                | Kopurua         | %          | Kopurua          | %          | Guztira                 | Gizonak    | Emakumeak  |
| <b>Guztira</b>                                                 | <b>248.650</b>  | <b>100</b> | <b>1.990.909</b> | <b>100</b> | <b>8,0</b>              | <b>8,4</b> | <b>7,6</b> |
| Liseri-aparatua                                                | 31.886          | 12,8       | 156.006          | 7,8        | 4,9                     | 4,8        | 5,1        |
| Zirkulazio-aparatua                                            | 30.768          | 12,4       | 234.314          | 11,8       | 7,6                     | 7,5        | 7,7        |
| Arnas aparatua                                                 | 30.504          | 12,3       | 178.954          | 9,0        | 5,9                     | 5,8        | 6,0        |
| Lesioak, pozoidurak eta beste ondorio batzuk kanpo-kausengatik | 23.248          | 9,3        | 147.219          | 7,4        | 6,3                     | 6,2        | 6,4        |
| Neoplasiak                                                     | 22.647          | 9,1        | 151.052          | 7,6        | 6,7                     | 7,1        | 6,1        |
| Aparatu muskulueskeletikoa                                     | 20.523          | 8,3        | 93.223           | 4,7        | 4,5                     | 4,4        | 4,7        |
| Aparatu genitourinarioa                                        | 18.895          | 7,6        | 77.727           | 3,9        | 4,1                     | 4,1        | 4,1        |
| Haurduntza, erditzea eta erdiberriroa                          | 14.518          | 5,8        | 46.252           | 2,3        | 3,2                     | -          | 3,2        |
| Sintoma eta aurkikuntza anormal klinikoak                      | 11.255          | 4,5        | 55.214           | 2,8        | 4,9                     | 4,9        | 4,9        |
| Nahasmendu mentalak eta portaerarenak                          | 7.558           | 3,0        | 570.627          | 28,7       | 75,5                    | 80,8       | 69,9       |
| Gaixotasun infektzio eta parasitario batzuk                    | 6.431           | 2,6        | 58.340           | 2,9        | 9,1                     | 9,3        | 8,8        |
| Nerbio-sistemako gaixotasunak                                  | 6.196           | 2,5        | 49.027           | 2,5        | 7,9                     | 8,4        | 7,4        |

Ehunekoa ospitaleratze eta egonaldi guztien gainean kalkulatu da

CIE -10 : Gaixotasunen Nazioarteko Salikapena, 10. bertsioa

Data 2025eko Martxoaren 27a

Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-inkesta

Nahasmendu mentalen eta portaeraren nahasmenduen taldea gainerako gaixotasun taldeetatik bereizten da, zenbait patologiarren kasuan (eskizofrenia, nahasmendu eskizotipikoak eta delirio-nahasmenduak) ospitaleko egonaldiaren iraupen luzearen ondorioz. Talde horrek bakarrik egonaldi guztien % 28,7 suposatu zuen, eta batez besteko egonaldi-egunak 75,5 izan ziren (80,8 gizonen kasuan eta 69,9 emakumeen kasuan).

Gainerako gaixotasun-taldeein dagokienez, zirkulazio-aparatuarekin lotutakoak (% 11,8) izan ziren egonaldi-egun gehien pilatu zituztenak, 7,6 eguneko batez besteko egonaldiarekin; ondoren, arnas aparatuekin lotutakoak (% 9) eta digestio-aparatuarekin lotutakoak (% 7,8) izan ziren, 5,9 eta 4,9 eguneko batez besteko egonaldiekin, hurrenez hurren.

### ***Metodologiari buruzko oharra***

Estatistika-eragiketa hau Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) lankidetzan egin da.

Bigarren informazio honetan akutuen ospitaleak, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak eta psikiatrikoak sartzen dira.

Estatuko eta nazioarteko estatistikekin alderatzeko, ospitalizazio-modalitatean egun bateko edo gehiagoko egonaldia behar izan duten gertakariak bakarrik hartzen dira kontuan, hau da, ez dira 0 eguneko egonaldia behar izan duten gertakariak zenbatzen. Egonaldiaren iraupena kalkulatzeko, ospitalizazio-dataren eta alta-dataren artean igarotako egun kopurua hartzen da kontuan, ospitalizazio- edo alta-orduak kontuan hartu gabe.

Euskal AEko 100.000 biztanleko ospitalizazio-tasa Eustaten 2023/07/01eko biztanleria egoiliarren datuekin kalkulatu da.

---

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*  
*Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*  
*Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62*